BERREZARKUNTZA
1875-1931

4. GAIA. BORBOIEN BERREZARKUNTZA. ERRESTAURAZIOAREN GARAIA (1875-1931)

Sei-urtekoan (1868-1874) erregimen demokratikoa ezartzeko saiakerak huts egin ondoren, Borbonen erregetza berrezarri eta Espainia liberalismo zentsitariora itzuli egin zen. Politika-sistema berria Canovas del Castilloren eskutik diseinatu egin zen. Hau, 1876ko Konstituzio kontserbadorean eta bi alderdi handien botere-txandaketan oinarritutakoa: kontserbadore eta liberala.

Berrezarkuntzak berrogeita hamar urte baino gehiago iraun zituen, hots, 1875etik II.Errepublikaren aldarrikapenera (1931). Urte luze horietan, Alfontso XII.a eta Alfontso XIII.a izan ziren errege eta bien erregealdien artean, Maria Kristina izan zen erregeorde (1885-1902).

Berrezarkuntza deritzon erregimen politikoa ez zen inoiz erabat demokratikoa izan (nahiz eta 1890. urtetik aurrera, gizonezkoen sufragio unibertsala bermatuta egon zen). Sistema politiko eta soziala beti egon zen, oligarkikoaren menpean (nekazaritza kapitalista eta industrialaren burgesiaren esku eta mesedeetan). XX.mendearen hasieran, Marokoren konkistaren eta langile mugimenduaren hazkundearen aitzakiarekin, militarren boterea handitu egin zen. Honen adibide da, 1923an Primo de Riveraren diktadura hasi izana.

Viñeta de La esquella de la Tortaza, 1905

~~GAIAREN ANTOLAKETA:~~

Garai historiko honek kronologia zabala hartzen du, hain zuzen ere, I. Errepublikaren erorketatik 1874.urtearen bukaeran, II.Errepublikaren aldarrikapenera 1931.urtean. Tarte honetan bi izanen dira erregeak: Alfontso XII.a lehenik (1875-85) eta Alfontso XIII.a ondoren (1885-1931). Azken hau jaio bezain pronto bihurtu zen errege eta beraz, hazi bitartean bere amak, Maria Kristinak hartu zuen errege kargua 1902.urtera arte:

- Alfontso XII (1875-85)
- Maria Kristinaren erregeordetza (1885-1902)
- Alfontso XIII (1902-31)

Gaia bi ataletan banatuko dugu eta hauen artean, 5. gaia tartekatuko dugu, hots, *XIX eta XX.mende hasierako ekonomia eta gizartearen garapena*. Beraz datozen orrialdeetan, Alfontso XII.aren eta Maria Kristinaren erregeordetzari dagokion teoria aurkituko duzu, (1875-1902).

4.1 BORBOIEN BERREZARKUNTZA.

ALFONTSO XII ETA MARIA KRISTINAREN ERREGEORDETZA

4.1.1. BORBOIEN ITZULERA.ALFONTSO XII.aren ERREGEALDIA (1875-85)

1. Mtz. Camposen estatu kolpea eta Alfontso XII.aren izendapena.
2. Canovas del Castilloa: Berrezarkuntza Erregimenaren oinarriak.
3. Gerren amaiera (Karlistadak eta Kuba).
4. 1876ko konstituzioa.

4.1.2. M.KRISTINAREN ERREGENTZIA ETA TXANDAKETA SISTEMA (1885-1902)

1. Pardoko ituna: txandaketa sistema (Kontserbadore eta Liberalak).
2. Txandaketa mantentzeko mekanismoak: hauteskundeen manipulazioa eta kazikismoa.

   **** Grafikoaren Iruzkina*** 203 or.

3. Txandaketaren bilakaera:alderdi dinastikoen gobernu ezberdinak (Canovas eta Sagasta)

4.1.3. SISTEMAREN KONTRAKO OPOSIZIOA.

1. Errepublikanismoa.
2. Langile mugimenduaren garapena: sozialismoa eta anarkismoa.
3. Karlismoa.
4. Nazionalismoak: katalana eta euskal nazionalismoa.

4.1.4. INPERIO KOLONIALAREN BUKAERA

1. Kubako independentziaren bilakaera
2. 1898ko krisia eta bere ondorioak (erregenerazionismoa).

   **** Testuaren ilruzkina***



4.1.1. BORBOIEN ITZULERA.ALFONTSO XII.aren ERREGETZA (1875-85)

1. MTZ.CAMPOSEN ESTATU KOLPEA ETA ALFONTSO XII.aren KOROAZIOA

Martinez Camposen altxamenduak (1874.eko abenduan) hasiera eman zion Espainiako garai historiko berriari. Monarkia Borboiaren berrezarkuntza eman zen ***Alfontso XII.aren*** (Isabel II.aren semearen) ***errege izendapenarekin***. Hau,begi onez hartu zuen armadaren eta indar politiko kontserbadoreen gehiengoak. Sistema berriaren arkitektoa eta protagonista nagusiena,***Antonio Canovas del Castillo*** izan zen, alderdi kontserbadorearen burua *(ikus liburuko 199.orria, Canovasen biografia)*.

2. BERREZARKUNTZAREN FUNTSEZKO OINARRIAK (liburuko 198-199 eta 201.orriak)

Canovas del Castillok finkatu zituen Berrezarkuntza sistemaren oinarrizko ardatzak. Bi izan ziren berehalakoan lortu beharreko helburu nagusienak: monarkia eta barne "bakea" zein ordenaren berrezarpenak honetarako ezinbestekoa izanik sistema politiko egonkor bat ziurtatzea. Hau guztia lortzeko oinarrizko printzipio hauek jarraitu ziren:

- **Dinastia Borboiaren defentsa gauza guztien gainetik** egongo da. Monarkia liberal Parlamentarioa izanen da eta erregeak eskumen zabalak izango ditu, botere legegilea esaterako. *(Irakurri liburuko 198.orriko Canovasen adierazpenak, "Monarkiaren eginkizuna")*.

- Egonkortasuna finkatzeko funtsezkoa zen Isabel II.aren garaiko politika kolpista gainditzea. Isabel II.aren garaian etengabekoak izan ziren liberal aurrerakoi eta moderatuen arteko ikamikak eta militarren estatu kolpeek egonkortasun politikoa oztopatu zuten. **Egonkortasuna lortzeko alderdi bitasunean eta txandaketa sisteman oinarrituriko sistema politikoa** bultzatu egin zen. Alegia, alderdi kontserbadoreak, (antzinako moderatuak) eta liberalak, (funtsean antzinako aurrerakoiak) altxamendu militarrei uko egin zieten gobernura iristeko bide gisa eta haien arteko botere txandaketa baketsuan oinarrituriko sistema onartu zuten, (Alfontso XII.aren heriotzaren ondotik sistematizatuko dena *Pardoko Itunaren* bidez, *ikus)*. Kontserbadore eta Liberalek boterea kontrolatzeak oposizio indarrak, (errepublikanoak, nazionalismoak, langile alderdiak…) jokoz kanpo uztea ahalbidetzen zuen.



Alderdi kontserbadorearen burua esan bezala, Canovas del Castillo izan zen eta Liberalen burua, Práxedes Mateo Sagasta (*ikus 201.orriko biografia).* Azken alderdi honek, garai bateko aurrerakoiak, unionistak eta errepublikano zentralista batzuk bildu zituen. Kontserbadore eta Liberalak nork bere ideologia izanik ere, oinarrizko gaietan bat egiten zuten, hala nola, monarkia Borboiaren, Estatu liberal zentralistaren eta botere oligarkikoaren defentsan, (Elizaren, jauntxoen eta burgesia dirudunen aldeko politiken aldekoak izanik).

- **Estatu** eredu **zentralista, oligarkikoa eta katolikoa** defendatuko da.
- Ordena eta barne bakearen defentsa helburu nagusienetakoa bihurtuko da eta honen aitzakiapean ustelkeria eta errepresio militarra justifikatuko dira. **Armada erregimenaren zutabe** nagusi bihurtuko da, monarkia, txandaketa sistema, espainiar nazionaltasuna, zentralismo politikoa, moral katolikoaren defentsa… ziurtatuko duena, (oposizio politiko eta ideologiko mota guztiei frenoa jarriz).



Antonio Canovas del Castillo (Málaga, 1828- Arrasate 1897), Errestauraziozko erregimenaren (1875-1902) bultzatzaile nagusienetarikoa kontsideratzen da. Alderdi kontserbadorearen burua eta bipartidismoaren arkitektoa.

Sei urteko demokratikoaren gainbeherari aurre egiteko eta "Espainiak zituen arazoak gainditzeko", konponbidea monarkia tradizionalaren itzuleran zegoela aldarrikatu zuen. Bere ekimenez, Alfontso XII. errege izendatu zuten eta borboien monarkia berrezarri zen.

Canovasek Espainiako bake eta egonkortasun garaiari hasiera eman zion, sistema politiko usteldu eta antidemokratiko baten bidetik.

3. GERRATEEN AMAIERA: KUBA ETA III.KARLISTADA (liburuko 202.orria)

Barne bakearen, ordenaren eta estatu batasunaren izenean, ***III. Gerrate Karlistari*** eta ***Kubako independentzia gerrari amaiera*** eman zitzaien.Honek, Berrezarkuntzaren erregimenari egonkortasuna eman zion.

Martínez Campos espainiar armadaren buru izanik karlistak garaituak izan ziren, lehenik Valentzia, Katalunia eta Aragoiko eremuak kontrolatu zirelarik (1875.ean) eta ondoren, Hego Euskal Herriko probintziak errendiarazi zituztelarik (1876.urtean). Vaskongadetako hiru probintziek haien foru gehienak galdu zituzten,ez ordea Nafarroak,zeinak 1841.urteko Lege Itundua mantendu zuen.

Karlistaldia kontrolatuta, Kubako gerran zentratu zen atentzio guztia. 1878.urtean, *Zanjóneko Bakearen* bitartez amaiera eman zitzaion Hamar urteko Kubako gerrari. Bake hitzarmenak nola edo halako eskumenak aitortu zizkien kolonoei, hala nola, esklabotzaren amaiera eta autonomia maila handiagoa administrazio kolonialean, baita, espainiar gorteetako ordezkaritzaren ziurtasuna ere. Neurri hauek ordea kostata bete ziren eta ezinegonak 1895.urtean lehertu ziren, bigarren eta azkeneko independentzia gerra leherraraziz, *(kus orrria).*

4. 1876.eko KONSTITUZIOA *(ikus liburuko 198.orria)*

EZAUGARRI NAGUSIENAK

1876.urteko konstituzioa, 1845ko (izaera moderatukoa eta kontserbadorekoaren) eta 1869.koaren (demokratikoaren) konstituzioetan inspiratuz idatzi zen. Konstituzio berriaren ezaugarri nagusienak honakoak izan ziren:

- Aberri Espainolaren subiranotasuna banatua da.
- Eskumen legegilea konpartitua da (errege eta gorteen artean) [1]
- Bi ganbaretako gorte sistema aldarrikatzen da.
  - o Parlamentua: sufragioz aukeratua
  - o Senatua: Senatari batzuk, berezko eskubidez dira senatariak (Espainiako Handiak, Armadako almirantea,erregeen seme-alabak, artzapezpikuak..);beste batzuk, zuzenean erregeak aukeratzen ditu.
- Estatuaren konfesionaltasun Katolikoa aldarrikatzen da**. ELIZAREN ESKUMENAK HANDITUKO DIRA.**
- Estatu eredua: zentralista.
- Sufragioari buruz ez da ezer aipatzen (gobernuan zegoen alderdiaren araberakoa izango da. 1890.urtean, gizonezkoen sufragio unibertsala aldarrikatuko da)

Oro har esan daiteke,balore tradizionalen defentsa, (koroa, eliza, familia) egiten duen **konstituzio kontserbadorea** dugula.

Konstituzioak monarkia, Eliza eta elite Oligarkiko nahiz militarra babestuko ditu. Printzipio hauek onartu ez zituzten alderdiek (errepublikanoek, anarkistek,karlistek eta nazionalistek) ez zuten konstituzioaren idazketan parte hartzerik izan eta gerora, sistema politikotik at gelditu ziren.

1876ko Konstituzioaren **ezaugarri nagusienetako** bat bere **izaera anbiguoa** eta **zehaztugabea** da. Alegia,artikulu askoren zehaztasun faltak interpretazio ezberdinei ematen die bide.Hau dela eta,gobernu bakoitzak (kontserbadore edo liberala) arazoak konpontzeko interesatzen zitzaion irakurketa egin zezakeen, arazoak norbere interesen arabera konponduko zirelarik, beti ere sistemaren oinarriak errespetatuz.





[1] Konstituzioaren arabera,monarkia erakunde eztabaida ezina eta iraunkorra zen.Gainera,edozein erabaki politikoen eta erakunderen gainetik ere bazegoen.Botere moderatzailea zen,politikan arbitro-lana egiteko lana baitzegokion. Konstituzioak eskumen ugari aitortu zizkion: beto-eskubidea,ministroak izendatzea, Gorteak deitu eta bertan behera uzteko eta indargabetzeko ahalmena,etab.

4.1.2. Mª KRISTINAREN ERREGEORDETZA ETA TXANDAKETA SISTEMA (1885-1902)

1. PARDOKO ITUNA:BIPARTIDISMOA ETA TXANDAKETA SISTEMA ***(ikus 203.orria)***

Jada aipatu dugun legez, Antonio Canovas del Castillok hasiera-hasieratik izan zuen alderdi dinastiko-bitasunean eta botere txandaketan oinarrituriko gobernu sistema ezartzeko helburua. Alegia, alderdi Kontserbadorearen (Canovasek lideraturikoa) eta Liberalaren (Sagastak lideratua) artean gobernua txandatuko zuen sistema politikoa.Sistema honek,Monarkia Borboiaren eta 1876.eko konstituzioaren iraupena ziurtatuko zituen. Gauzak honela, txandaketa erregulartasunez egon zen indarrean 1875.urtetik 1898.urtera. Lehenengo urteetan Kontserbadoreak izan ziren nagusi Parlamentuan eta gobernuan (1875-81) eta hurrengo legebiltzarrean Liberalak. Baina 1885.urtean Alfontso XII.a hil zen eta egoera ezegonkor honen aurrean, txandaketaren sistematizazioa beharrezkotzat ikusi zuten, hau itun baten bitartez finkatuta geldituko delarik.

Alfontso XII.a hil zenean, (tuberkulosiak jota), bere oinordekoa oraindik ez zen jaioa. Maria Kristina bere emaztea haurdun zegoen (errege izango den Alfontso XIII.arena). Haurra jaio eta handitu bitartean,Mª Kristina izendatu zuten Espainiako erregeordea.Alfontso XII.aren heriotzaren ondoren (1885. urtean), egonkortasun politikoa zapuzteko beldurrez eta oposizio politikoa kontrolatzeko helburuz, txandaketa sistema sistematizatu egin zen. *Canovas del Castillo* eta *Sagastak,* **Pardoko Ituna**ren bitartez,beren alderdien txandaketan oinarrituriko sistema politikoa adostu eta finkatu zuten.Ituna ren helburu nagusienak bi izan ziren:

Maria Cristina eta Alfontso XIII

- Mª Krisitina erregeordea babestea eta Monarkiaren jarraipena bermatzea (karlisten eta errepublika zaleen presio handiei aurre egiteko)
- 1876.urteko konstituzioa salbatzeko aitzakiarekin, ustelkerian oinarrituriko sistema politikoa bermatzea.

Gauzak honela, **gobernu kontserbadore** eta **liberalaren txandaketa sistematikoa** adostuko da. Gobernuaren eta Parlamentuaren kontrola gehiengo absolutuz bermatuko da, legebiltzar batean kontserbadoreak izanik nagusi eta hurrengoan liberalak, eta alderantziz. Praktikan ez zen alde handirik egon batzuen eta besteen gobernuen artean, ezen, biek erregimenaren oinarriko printzipioak muturreraino defendatu zituzten. Era berean, ez zen oposizio bortitzik egiten, ezen nork bere aginte txanda errespetatzen zuen. Gobernu aldaketak ezegonkortasun sozialen garaietan agintzen ohi ziren, guztiz faltsuturiko hauteskunde sistema baten bidez. Sistema hau **txandaketa baketsua izendatu zuten,** egonkortasuna eta barne bakea bermatzen zituelarik. Baina errealitatean, ustelkeri gordinean oinarrituriko sistema izan zen, **bat ere demokratikoa ez zena**, (nahiz eta 1890.urtetik aurrera sufragio unibertsala aitorturik egon, (*ikus liburuko 206.orria)*. Mª

Kristina erregeordea, ustelkeria politiko honen konplizea izan zen guztiz.Izan ere, bere helburu nagusiena, bere semea Alfontso XIII.aren erregealdia babestu eta ziurtatzea izan zen.

2. TXANDAKETA MATENTZEKO MEKANISMOAK: MANIPULAZIOA ETA KAZIKISMOA

Txandaketa sistema bermatzeko **ustelkeria politikoa mantentzeko bitarteko ezberdinak erabili zituzten** *, (ikus liburuko 202.orria eta irakurri 206-207.orrietako testu eta karikaturak).*

1.HAUTESKUNDEEN MANIPULAZIOA (pucherazo)

Boto eta emaitzak zuzenean manipulatzen zituzten.Boto kontaketa egiterako orduan, *"txanda zegokion"* alderdiaren aldeko kontaketa egiten zuten (kontserbadore edo liberalen botoak sartuz)

2.KAZIKISMOA- JAUNTXOKERIA

Kazikeak tokian tokiko lidergo politikoak izaten ziren,influentzia handiko gizonak eta gobernuaren esanak betetzen zituztenak.XIX.eko Errestaurazioaren garaian,gobernu zentralak kazikeak erabili zituen botoak manipulatzeko.Alegia,boto salerosketaren bidez,faboreen edo klientelismoaren bidez…alderdi liberal edo kontserbadorearen garaipena ziurtarazten zien. Jauntxokeria estatu osoan izan zuen eragina eta maiz, elizgizonen laguntzaz egin zen. Jauntxokeri honek indar berezia izan zuen garapen maila baxueneko tokietan, hots, nekazal eremu tradizionaletan, Gaztela bietan, Andaluzian eta Galizian. Industria gune ziren tokietan ordea, langile kontzientzia handiagoa izan zen eta beraz, jauntxoen eragina txikiagoa izan zen. Toki hauetan zuzeneko boto manipulazioa egin zen.

Klientelismoa: faboreen trukean, laguntza eta babes elektoral zein politikoa ematean oinarrituriko sistema.Errestaurazioaren txandaketa sistemaren oinarrietariko bat izan zen.Bereziki nekazaritza munduan izan zuen arrakasta.Kazikeek (patroiek, lurjabeek, alkateek, zinegotziek...), nekazari xume eta herri xehea erabili zituzten euren botoak jasotzeko.Kontuan hartu beharra dago,garai honetan herri masaren gehiengoa oraindik alfabetatu gabea zela; zenbaitetan gutxiagotasun sentimendua zuela (noble, aberats eta kultura gizonen aurrean); eta politika kontuetan parte hartzeko kontzientziarik ez zuela. Egoera honetaz probestu egin zen Errestaurazioko elite politikoa (kontserbadore zein liberala)



EL PUCHERAZO

Para hacer las listas de electores se añaden algunos nombres verdaderamente perdidos entre la multitud de imaginarios, y sobre todo, de difuntos. La representación de estos últimos se da siempre a agentes disfrazados de paisano para ir a votar. El autor de estas líneas ha visto repetidas veces que su padre, ya fallecido hace algunos años, iba a depositar su voto en la urna bajo la figura de un barrendero de la ciudad o de un sabueso de policía, vestido con traje prestado (...)

Apresurémonos a decir que ordinariamente se detienen en esas apariencias (...) lo que hacen es pura y sencillamente aumentar el número de votos hasta tener asegurada la elección del candidato adicto(...)

Valentín Almirall: España tal cual es. 1886

OLIGARQUÍA Y CACIQUISMO

Oligarcas y caciques constituyen lo que solemos denominar clase directora o gobernante, distribuida o encasillada en "partidos". [...] En las elecciones […] no es el pueblo, sino las clases conservadoras y gobernantes, quienes falsifican el sufragio y corrompen el sistema, abusando de su posición, de su riqueza, de los resortes de la autoridad y del poder que para dirigir desde él a las masas les había sido entregado."

Joaquín COSTA: ***Oligarquía y caciquismo como la forma actual de gobierno en España: urgencia y modo de cambiarla (…)*** **debate del Ateneo de Madrid, marzo de 1901.**

KAZIKEAK: tokian-tokiko handikiak ziren, (lur jabeak, herrietako apezak, burgesak, guardiak...). Berrezarkuntzaren garaian txandaketaren konplize izan ziren, hauteskundeen aurretik herritarren botoak bideratzeaz arduratzen baitziren, herritarrak zegokion alderdiari botoa ematera bultzatuz, (faboreen bidez, mehatxuen bidez, diruaren truke...)

HAUTESKUNDEEN DEIALDIA ETA FALTSUTZE SISTEMA: **ERREGEAK HAUTESKUNDEAK DEITZEKO AGINDUA EMAN ETA GERO…**



HAUTESKUNDE IRUZURRA ETA ALDERDIEN TXANDATZEA

Herrialdeari eragiten dizkioten zorigaitz larrienengatik ez balitz, gure hauteskundeak Europa osoko ikuskizunik dibertigarriena izango lirateke (...) Gure artean, erabateko fartsa nagusitu da, gordintasun osoz, eta hori Espainiako hauteskundeetan soilik gertatzen da. Bai sufragio unibertsala izan bai murriztua izan, hautesle bakarra dago beti: Gobernazio ministroak. Hark, probintzietako gobernadoreen eta mota guztietako mendeko enplegatu ugarien laguntzaz (...) prestatze, gauzatzen eta burutzen ditu hauteskundeak (...)

Hautesleen zerrendak egitean, benetako izen batzuekin batera asmatutako izenak jartzen dituzte;batez ere, hildakoen izenak. Eta hildako horien izenean mendeko enplegatuak joaten dira botoa ematera, zibilez jantzita.

3. TXANDAKETAREN BILAKAERA:ALDERDI DINASTIKOEN GOBERNU EZBERDINAK

Alderdi dinastikoen oinarri politiko eta ideologikoak antzerakoak baziren arren,modu ezberdinean gobernatu zuten.Konstituzioaren zehazgabetasunak honetarako aukerak eman zituen.

- **Alderdi Kontserbadorearen neurri politikoak**: sufragio zentsitarioaren ezarrera (1890.urtera arte), langile batzordeen debekua,berrezarkuntzaren oinarriak errespetatzen ez zituen alderdiak legez kanpo uztea… *(Ikus liburuko 218.orria, Canovasen hitzaldia sufragio unibertsalaren kontra).*
- **Alderdi Liberala**: liberalek berrikuntza lana sustatu zutela esan genezake (erregimenari itxura demokratikoa eman nahian). Harturiko neurrien artean hauek nabarmenduko genituzke:

- Oposizioaren hainbat alderdi politikoen parte hartze politikoa onartu zen,errepublikanoena esaterako,(lehenengoz Berrezarkuntzan Parlamentuan alderdi dinastikoak ez ziren diputatuak iritsiz).
- Sindikatu-askatasunerako legea idatzi zuten eta langileen batzordeak ere legeztatu ziren
- Prentsa legea aldarrikatu zuten: adierazpen askatasuna bermatzeko helburua zuena
- Gizonezkoen sufragio unibertsalaren ezarrera egin zuten (1890). Ordutik,gizonezko guztiek eskuratu zuten bozkatzeko eskubidea.

4.1.3.SISTEMAREN KONTRAKO OPOSIZIOA

Berrezarkuntzaren garaian eta Canovasek ezarritako sistemaren arabera, bi multzo nagusi berezitu ziren maila politikoan:

- Alderdi dinastikoak (sistemaren barneko alderdiak): Kontserbadore eta Liberalak.
- Sistematik kanpo zeudenak: errepublikanoak, sozialistak, karlista eta nazionalistak. Oposizioaren alderdiak guztiz zokoratuak egon ziren eta inoiz ez zuten gobernua osatzeko behar adina diputatu lortu, beti, Parlamentuan gutxiengoa osatzen zutelarik.

Orduko oposizio politikoaren arrakasta txikia jakina, txandaketa ahalbidetzen zuen ustelkeri politikoaren ondorio zen. Kontuan hartu beharrekoa da halaber, gizartearen gehiengoa alfabetatu gabekoa zela eta kontzientzia politikorik gabekoa. Herritar xume gehienak orduko jauntxokeriaren biktima ziren. Kontzientzia politikoa emeki-emeki garatuz joan zen estatuko biztanleen artean, hau nagusiki eskualde latifundista eta industrialera zabaldu zelarik, (Andaluzia,Katalunia…). Kontzientzia politikoa bi ardatz nagusienetan garatuko da;

- Langile eta proletario klasearen artean, Internazionalismoaren giroan indarrez sartu ziren mugimenduekin bat egin zutenak, (batzuk sozialismoa besarkatuz eta besteak anarkismoa).
- Klase burges eta intelektualaren artean, batzuk, errepublikanismora hurbilduz eta beste batzuk nazionalismo edo erregionalismora. Europan gertatu zen legez,Iberiar Penintsulan ere mugimendu nazionalistak indarra hartuz joan ziren.

1. ERREPUBLIKANISMOA

Sagastaren garaietan Alderdi Errepublikanoak legeztatuta gelditu eta diputaturen bat lortzera ere iritsi ziren. Hala ere, ez ziren inolaz ere sei urteko demokratikoaren garaiko emaitzetara iritsi. Militante eta bozka gehienak,erdi mailetako klase intelektual eta burgesetik jaso zituzten. Errepublikanoen artean,talde ezberdinak berezitu ziren. Denek,komuneko ezaugarriak bazituzten arren, (eredu errepublikarra eta demokratikoa),printzipio ideologiko ezberdinak zituzten eta arrakasta ere talde sozial eta gune geografiko ezberdinetan izan zuten.

- **Posibilistak eta zentralistak**: Emilio Castelar errepublikano historikoak fundaturiko alderdia eta Salmeronek jarraiturikoa. Alderdi honek,demokrazia kontserbadore eta zentralista defendatzen zuen.
- **Federalak:** Pi i Margall-en lidergopean egoten jarraitu zuen alderdia, estatu demokratiko eta federalaren defentsa egiten zuena. Langile elkarteetatik gertuago kokatu zen eta gizarte berria aldarrikatzen zuen, (kapitalismo eta langileriaren adostasunean oinarritua). Klase herrikoien babesa izan zuen, baita, Katalunia aldeko zenbait burges txikiren babesa ere.
- **"Erradikalak":** Errepublikar zentralisten eszisio batetik eratua, errepublika ekintza iraultzaileen bidetik berrezartzearen aldekoak ziren, (Ruiz Zorrillaren lidergopean). Zenbait militarren artean babes jaso eta estatu kolperen bat ematen ahalegindu ziren, huts eginez.

2. LANGILE MUGIMENDUA (osatu liburuko 190 eta 191.orriekin)

Langileriaren kontzientzia eta indarra handituz joan zen Berrezarkuntzan zehar. 6 urteko demokratikoan sindikalismoaren hastapenak eman ziren eta Internazionalaren ideiak zabaldu ziren (honetan zer esan handia izan zuela Fanelli anarkistaren ekarpenak). Giro honetan, **Langile Batzorde edo Federazioak** ugaritu egin ziren. Berrezarkuntzaren hasieran,langileen elkarteak debekatuta gelditu ziren eta klandestinitatean antolatu behar izan zuten (Sagastak,sindikatu batzuk legeztatu zituen arte).

ESKUALDEA	BANAKETA
Katalunia	% 40
Andaluzia	% 22
Valentzia	% 10
Gaztela	% 9
Gainerakoak	%15

Langile Nazioarteko Erakundea Toki Federazioak

LNE HAUSTURA

Lehen Internazioana bakunisten eta marxisten artean hautsi zen. 1872an Bakunistek ez zituzten langile alderdiak osatzearen aldeko tesi marxistak onartu Erakundetik kanporatu zituztenean,anarkisten Internazioal Antiautoritarioa sortu zuten, 1881 arte iraun zuena. 1872an bertan, gainera, eta Marxek eskatuta, LNEren Kontseilu Federalaren egoísta New Yorkera aldatu zen: ez zuen arrakastarik izan, ordea, eta 1876an desegin zen.

1870.hamarkadan Europa mailan langileriaren artean zatiketak eman ziren,bi korronte handi eratuz: sozialismoa eta anarkismoa. Biek komunean zuten: jabetza pribatuaren eta kapitalismoaren deuseztapena, klase gizartearen abolizioa, etab. Desberdintasun nagusiena,hau lortzeko bidean zetzan.

- **Sozialismoa** (***Marxen jarraitzaileak):*** bide politikoak jarraitzearen aldekoak ziren.Langileria politikan aritzeko antolatu behar zen,Estatu berri bat eraikitzeko.Hasiera batean,estatu hura proletalgoaren eta langileriaren diktadurapean antolatuko zen.
- **Anarkismoa** ***(Bakunin-en jarraitzaileak)***: politika arloko bidea eta ekintza jorratzearen kontra zeuden eta hauteskundeen parte hartzearen aurka zeuden. Estatua kontrolatu baino,suntsitu behar zela zioten (langileria,komunitate libre eta buruaskietan antolatzeko).

- **SOZIALISMOA**: sozialismoak hasieran indar txikia izan zuen, (anarkismoaren aurrean). Madrid, Bizkaian eta Asturiasen izan zuten nagusiki oihartzuna, zailtasunez sartu ziren ordea, anarkosindikalismoaren feudo ziren tokietan, (Katalunian esaterako). Sozialistak Marxen jarraitzaileak ziren eta helburua, Marxen tesiari jarraituz, hauteskundeen bitartez estatura iritsi eta orduan,iraultza ematea litzateke, (klase gizartearekin,jabego pribatuarekin…. amaituz).
  - *1879.urtean,**PSOE*** jaio zen,***Pablo Iglesias***-en lidergopean. Alderdi politiko honek hainbat erreforma planteatzen zituen bere programa politikoan, hala nola, lan orduen murriztea, haur esplotazioaren amaiera, jai egunen finkatzea, greba eta manifestazio eskubidea…
  - *1880.urtean*, ***UGT*** sindikatu jaio zen,alderdi sozialistaren ildoarekin bat eginez.
  - *1910.urtean,* Alfontso XIII.aren erregealdian, lehenengoz lortu zuten Parlamentuan ordezkaritza,Pablo Iglesias diputatu bihurtuz.

IDEIA SOZIALISTAK

1. Langileriak botere politikoa izatea.
2. Norbanakoaren jabetza edo lan-tresnen jabetza korporatiboa jabetza kolektibo, sozial edo denon artekoa egitea. Lan tresnak dira:lurra, meategiak, garraioak, lantegiak, makinak, diru-kapitala...
4. (...) Langile Alderdi Sozialistaren ideala langileriaren emantzipazioa da. Hau da, gizarte klase guztiak deuseztatzea eta langile libreen, berdinen, zintzoen eta ikasien klasea osatzea, lanaren emaitzaren jabeak izateko

PSOEren programa, 1888 Biltzarra

- **ANARKISMOA:** arrakasta itzela izan zuten XIX.mendearen bukaeraz geroztik (eta baita, XX.mende hasiera osoan zehar ere). Kontuan hartu behar da,Internazionalaren eta Langile mugimenduaren nondik norakoak,Bakunin-en jarraitzaileen bidez sartu zirela Estatuan. Lehengo Langile Federazioak Espainian anarkisten eraginpean egon ziren nagusiki.
  - *Arrakasta gehien,*Kataluniako proletarioen eta Andaluziako jornalarien artean izan zuen (I.Errepublikan iraultza kantonala eman zen tokietan eta industria nahiz nekazaritza latifundista garatua zegoen tokietan).
  - *Estatua suntsitzearen aldekoak ziren*, legedi inposatuak debekatu eta autogestioaren bitarteko antolakuntza defendatzen zuten. Izan ere, anarkistentzat gauza guztien gainetik norbanakoaren askatasun eskubidea dago. Anarkista batzuk, kapitalismoa sostengatzen zuten indarren kontrako ekintza zuzenak egitearen aldekoak izan ziren, hots, Estatua, Burgesia eta Elizaren kontrako ekintzak antolatzearen aldekoak. Honi jarraituz anarkista

batzuk,Esku Beltza izeneko talde armatua eratu zuten, atentatu ugari burutu zituenak: Alfontso XII.aren kontrakoak,BCN-ko liceoaren bonbardaketa (burgesiaren topatze lekua), Canovas del Castilloren heriotza… Atentatu hauek ondorio latzak izan zituen mugimendu anarkistarentzako,izan ere,estatuak indarkeriaz (atxiloketak, fusilaketak…) erantzun zuen langile mugimendu osoaren kaltetan.

- *XX*.mende hasieran,borroka egiteko eta langileriaren iraultza aurrera eramateko bide berriak planteatu ziren, anarkosindikalismoa jaioz borroka bide gisa. 1910.urtean,**CNT** sortu zen, guztietan, **FAI**rekin batera, jarraitzaile gehien bildu zituen sindikatua izatera iritsiz.

3. KARLISMOA *(osatu liburuko 204-05.orriekin)*

III.Gerra Karlista galdu ondoren hondoratzea eta zatiketa izan zen karlisten patua. Karlista batzuk Alfontso XII.aren erregetza onartu zuten eta beste batzuk, XIX.mende bukaeraz geroztik, nazionalismoak besarkatu zituzten.

Gerraosteko karlistek Zirkulu Karlistak fundatu zituzten hainbat tokietan, nagusiki, hego Euskal Herriko probintzietan. Hauetan espainiar sistema politikoan nola txertatu eztabaidatu ohi zen, baita garai berrietara egokituko zen alderdi politiko bat fundatzearen inguruan. Azkenik, Antzin Erregimenaren aldarrikapena egiteari utzi eta sistema liberal kapitalista onartu zuten, beti ere, hainbat printzipioei uko egin gabe, (foruzaletasuna, Karlos VII. Erregaiaren eta erlijio katolikoaren defentsa…). Proposamen hauek ordea ez zituzten muturreko karlista guztiak asetu eta beste behin zatiketa eragin zuten karlisten artean. Azken hauek alderdi guztiz integrista fundatu zuten, Nocedal buru izan zutenak, *(irakurri liburuko 205.orriko "integrismo katolikoa")*.

4. NAZIONALISMOAK *(osatu liburuko 208-211.orriekin)*

- Nazionalismoa, Europan XIX.mendean garatu eta indartu egin zen fenomeno ideologiko eta mugimendu politikoa izan zen.Baina,zer da nazionalismoa? Herriaren nazio izaera defendatzen duen mugimendua. Estatuak, nazioa irizpidetzat hartuta eratu beharko lirateke.

- Estatuan,hasiera batean, batik bat Katalunian eta Euskal Herrian garatu zen (ondoren, Galizia, Aragoi,Valentzia eta Andaluziara ere hedatu zena). Mugimendu hauek jatorrian intelektualek eta negozio gizonek bultzatu zituzten. Alegia, espainiar zentralismo politikoa defendatzen ez zutenak eta barne politika administratibo zein kultural propioa aldarrikatu zutenak.

- ***KATALUNIA***: batez ere,burgesia katalana industrialaren eta intelektualen artean zabaldu zen. Ideia nazionalistak indarra hartu zuen Katalunian hazkunde ekonomikoa ematen ari zela. Kapitala Katalunian gelditzea nahi zuten eta espainiar gobernu zentralistak ez zituen haien interes ekonomiko zein politikorik babesten. XIX.mende bukaera aldera alderdi katalanistak sortuz joan ziren, autonomia maila handiagoa exijituz. XX.mende hasieran, *Lliga Regionalista* sortu zen, guztietan indar gehien izan zuen alderdi nazionalista katalana garai horietan. Kataluniako nazionalismoak halaber,hizkuntza eta kultura katalanaren babestea izan zituen helburu, *Reinaxença* izeneko mugimenduak defendatu zuena,(*irakur liburuko 208.orriko testua)*

- ***EUSKAL NAZIONALISMOA***: gure nazionalismoa karlismoaren porrotaren garaiarekin eta industrializazioaren garapenarekin bat dator.Hasieran, nazionalismoa foruen galerari erantzuna emateko garatu zen,ondoren,Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua ere bihurtu zen. Gainera, erlijioak eta usadioen defentsak ere garrantzi handia hartu zuen. ***Sabino Arana Goiri*** izan zen abertzaletasunaren bultzatzaile nagusiena.Bilboko meategi eta industriara beste probintzietatik etorritako etorkinen iristea, (*maketo* izendatuak), arriskutsutzat hartu zuen euskara nahiz euskal kulturarentzako.Tradizioa,katolizismoa,lege zaharrak eta arraza garbitasuna izan ziren bere ideologiaren ardatzak, *(irakur liburuko 209.orriko "Aranaren Pentsamendua" testua)*. Ideia sabinistak batik bat,burgesiaren inguruan eta Bilboko oligarkia industrialaren inguruan zabaldu ziren. 1895.urtean, ***EAJ-PNV*** fundatu egin zen.

- ***GALIZIAKO NAZIONALISMOA:*** galegoa nagusiki landa eremuko herritarrek erabiltzen zuten hizkuntza zen. XIX.mende bukaeran, zenbait galiziar intelektual eta literaturagileak kultura eta galegoaren erabileraren aldarrikapena egiten hasi ziren, literatur hizkuntza ere bilaka zedin. Autorerik ospetsuena ildo honetan, Rosalia de Castro idazlea izan zen, *(Rexurdimento* mugimenduaren sortzailea). Maila politikoan ordea nazionalismo galegoak ez zuen oihartzun handirik izan XX.mendearen bigarren erdira arte.

NAFARROAKO EUSKARA ELKARTEA

Hizkuntza, kultura, identitate propioaren aldarrikapenak ohikoak bihurtu ziren testuinguru honetan, Nafarroan euskararen aldeko elkarte bat sortu zen zenbait intelektualen eskutik, hala nola, Iturralde i Suit, Estanislao Aranzadi eta Arturo Campionen eskutik. Iturralde i Suit eta Campionen hitz hauek, ("La Paz" 1876), ongi baino hobeto laburbiltzen dute elkartearen xedeak; *"Si el pueblo euskaro, cuya raza, cuyo genio peculiar, cuyas costumbres son tan esencialmente distintas de las de los otros pueblos, ha podido conservar su personalidad, y se ha mantenido con su genuino carácter y sus varoniles virtudes á través de los siglos, es indudablemente porque supo guardar, como en depósito sagrado, esa antiquísima lengua vascongada que eminencias del saber estudian hoy con afán en toda Europa, y sería vergonzoso que lo que extraños se esfuerzan en sostener, y respetuosos enaltecen, dejáramos nosotros olvidar. A impedir que desaparezca tan admirable idioma y á propagarlo, si posible fuese, se dedicará con empeño la Asociación"*. Euskara sustatzeko ekimen ugari bultzatu zituzten, besteak beste, "Euskara" aldizkarien argitalpena, literatur lehiaketak, ikerketa zientifiko eta linguistikoak, instituzioei laguntza eta inplikazioaren eskakizunak euskararen irakaskuntza bultzatzeko…

GAMAZADA (1893-94): FORUEN DEFENTSA

"Gu gaurko euskaldunok gure arbaso ilezkorren oroipenean bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko". Foruen damaren oinetan irakur daitezken hitzok XIX. mendeko Nafarroako jendarteak idatzi zituen, herrialdearen historia liburuan betiko gorde daitezen. Mezu argi bezain garbia utzi nahi izan zuten: aldaketak aldaketa, nafarrek ez zuten galtzen utziko arbasoen aberriaren arima. Izan ere, 1893 eta 1894 bitartean, Espainiako ogasun ministro German Gamazok, Sagasta Liberalaren gobernu garaikoa, Foru sistema ezabatu nahi izan zuen, Nafarroari geratzen zitzaion azken eskumenetako bat deuseztatuta. Erabaki horrek haserrea sortu zuen herrialdean eta herritarrak matxinatu egin ziren lege zaharraren defentsan. Izan ere, nafar askatasunaren azken hondarra kinka larrian zegoen. Hori dela eta, jendarteak indarra bildu zuen kanpoko erasoei aurre egiteko. Ogasun ministroak maiatzaren 11n adierazi zuen bere asmoa, eta 19an lehen protestak egin ziren Iruñean, herri matxinadari ateak zabalduta. Handik gutxira, E*l Eco de Navarra* egunkariak dei egin zuen bost merindadeetako bizilagunak kalera irten zitezen maiatzaren 28an. Bien bitartean, erakundeak sinadurak biltzen hasi ziren Gamazoren proposamenari planto egiteko. Orotara, 120.000 bildu zituzten, Nafarroak 300.000 biztanle zituen garaian. Iruñean 1893ko ekainaren 4an, Gamazoren neurriaren aurkako manifestazio batek kaleetan 15.000 lagun baino gehiago bildu zituen, estamentu eta ideologia guztietakoak. Hau Nafarroan ordura arte izandako manifestaziorik handiena izan zen. Protesta amaitzeko Iruñeko Orfeoiak *Gernikako arbola* kantatu zuen. Foruen defentsak Hegoaldeko herrialde guztien batasuna indartu zuen, bai eta *Laurak Bat* goiburua ere. Protestak protesta, ezin izan zuten neurria baliogabe utzi, baina ministroak kargua utzi zuenez, legea ez zen inoiz indarrean jarri.

FORUEN MONUMENTUA



Herritarren eskaeraz altxaturiko monumentua dugu, berau egiteko, 25 zentimo eta 25 pezeta arteko donatiboak onartu zirelarik. Proiektua Manuel Martínez de Ubagorena da. Obrak XIX.mendean hasi eta 1903.urtean bukatu ziren.

Maria Cristina erregeordeak Martínez Campos jeneralari galdetu zion eskua sartu behar zuen edo ez eta hau izan zen honek erantzundakoa, (Etxabe Susaetak *El Partido Carlista y los Fueros* liburuan adierazitakoaren arabera):

Andrea: Beste probintzia bat izango balitz, gogoan izango genuke bertan lege orokorra ezartzea, beharrezkoa izanez gero, indarra erabiliz; Nafarroa Garaia bakarrik izango balitz, oraindik bide bera erabiliko genuke, baina gogoan hartu behar dugu Nafarroa Garaiak beste hiru probintziak aldamenean dituela, eta Nafarroa Garaia erasoz gero, euskal herritar guztiek haren alde egingo luketela, eta haiekin batera Espainiako karlista guztiek; probintzia haietan matxinada orokorra sortuz eta berriro guda zibila.

4.1.4. INPERIO KOLONIALAREN BUKAERA. 1898ko KRISIA ETA ONDORIOAK

1. GERRA KOLONIALAK: KUBAKO INDEPENDENTZIA GERRAK (liburuko 211-13 orriak)

Kubak jada "sei urteko demokratikoan" (1868-74) hasi zuen bere egoera kolonialarekin amaitzeko lehenengo saiakera. Gerra honi, *hamar urteko* gerra deritzogu eta Canovas del Castillok amaiera eman zion Errestaurazioaren lehenengo urteetan.

Alfontso XII.aren erregealdian Kuban talde *autonomistak* eta *independentistak* errotu egin ziren. Autonomistek, Kubako koloniari Espainiako gainerako probintzietako eskubide eta legislazio bera errekonozitzea eta irlaren autonomia maila handitzea nahi zuten. Alegia, kubatarrek Espainiako hiritarren moduko eskubideak izatea eta Espainiako gorteetan ordezkatuta egotea nahi zuten. Independentistak ***José Marti*** liderraren inguruan antolatu ziren. 1892.urtean, independentziaren aldeko alderdia fundatu zen (*Partido Revolucionario Cubano)*.

Errestaurazioko gobernuek ez zieten Kubako eskakizun politikoei muzinik egin. Gainera, Espainiako gorteek ekonomikoki irlako elite latifundista eta merkatariak faboratzen ez zituzten neurri protekzionistak hartu zituzten (AEBrekin eta bestelako herriekin komertzio harremanak oztopatzen zituztenak). Gauzak honela, Kubako gizartearen jarrera "erradikalizatu" egin zen eta erabateko independentziaren aldeko sentimenduak nagusituz joan ziren. Hemendik aurrera, matxinadak antolatzen hasi ziren eta Espainiako gobernuaren kontrako gerrari hasiera eman zitzaion (1895.ean). Canovasek hauek gelditzeko, Martínez Campos militarra Kubara bidali zuen, baina honen arrakasta militarra txikia izan zen, (nahiz eta José Martí lider karismatikoa hiltzea lortu zuten). Honen aurrean, espainiar tropak ugaritu eta lider militar berriak bidali ziren irlara (Weyler), populazio zibilaren kontra oso gogor eginez.

Canovasen erailketaren ondoren (1897.urtean), Sagastaren gobernu aurrerakoiak gerra diplomaziaren eta akordioaren bidez apaldu nahi izan zuen. Honetarako, autonomia osoko proposamena luzatu zien. Alegia, Kuba, Espainiako koroaren menpeko Estatu Autonomoa bilakatzeko proposamena (sufragio unibertsalez kubatarrek aukeratuko zuten euren gobernu propioa, espainolen moduko eskubide zibilak izango zituzten, Espainiako gorteetan ordezkaritza izango zuten…). Erreforma ordea beranduegi heldu zen, izan ere, kubatar gehiengoaren eskakizuna ez zen jada erreforma koloniala, irlaren independentzia baizik.

Testuinguru honetan bertan, Filipinetan ere independentziaren aldeko insurrekzioak hasi ziren.

Kubako gerrillak hasieratik AEBen laguntza izan zuen. Izan ere, amerikarrei Kubaren independentzia interesatzen zitzaien, irlaren merkataritza eta produkzio latifundistetan interesatuta zeudelarik. 1898.urtean, Iparramerikako presidenteak Espainiari Filipinak eta Kubako irlen salmenta proposatu zion. Espainiak, ezezko borobila eman zuenean, AEBk gerra deklaratu zioten, ***Maine itsasontziaren hondoratzea*** aitzakiatzat hartuz. *Mainé* itsasontzi amerikarra Kubako, portuan zegoena, hondoratu egin zen eta errua, espainolei leporatu zitzaien (nahiz eta egun, zalantzan jartzen den hau. Antza denez, amerikarrek beraiek hondoratu zuten Espainiari gerra egiteko aitzakia izateko). Honen aurrean, AEBko tropak sartu ziren gerran, Espainiako armada berehala garaituz.

1898.urtean bertan, Espainiak ***Pariseko Bakea*** sinatu zuen, zeinean, kolonien jabetza ukatzen zuen eta AEBi hauetan orden politikoa berrezartzeko papera egozten zion.

2. 1898KO HONDAMENDIA ETA HONEN ONDORIOAK (liburuko 214-215.orriak)

Kolonien galerak Espainiako gizartea moralki hondatuta utzi zuen, bereziki klase intelektuala.

Espainiaren gainbehera zentzu guztietan iragaten hasi zen. Espainia zorigaitzez beteriko nazioa zen, erabat hondoratuta zegoena (arrazoi ezberdinak zirela medio).

- Kolonien galerarekin, Espainiako inperio historiko eta tradizionala desagertu egin zen. Europako potentziek beren inperioak eratzen zituzten bitartean, (Afrikaren banaketaren garaia baitugu), Espainiak galdu egiten zuen. Honek definitiboki Espainia nazioarteko eskenatokian bigarren mailan uzten zuen.
- Kolonien galerak gainera, Espainia irletako merkaturik eta produkturik gabe utziko zituen.
- Kolonien galerak, Espainiako armadaren eraginkortasuna eta indarra zalantzan jarri zuen. Honek, klase militarraren barnean izugarrizko etsipen eta frustrazio sentsazioa eragin zuen.
- Ekonomikoki, Espainia ez zen Europako potentzien modura garatzen eta modernizatzen. Industrializazio oso lokalizatua zegoen (Bilbo-Katalunia…) eta Espainiak funtsean, herri nekazaria eta "atzeratua" izaten jarraitzen zuen. Populazioaren gehiengoa gainera, alfabetatu gabea eta hezkuntzarik gabekoa zen.
- Politikoki Espainia ustelduta zegoen eta gizarte sistema "korruptuaren" kontzientzia hartzen hasi zen.

Dena dela, **krisia ez zen izan uste bezain handia eta Espainiako sistema politikoa bere horretan mantendu egin zen:**

- Espainiako monarkiak aurrera jarraitu zuen alderdi kontserbatzaile eta liberalen txandaketa sistematikoarekin.

- Ekonomikoki kolonien galera ez zen hasieran uste bezain katastrofikoa izan. Protekzionismo ekonomiko sutsuak, industria guneak babestu egin zituen. Hori bai, Espainiak, herri nekazari tradizionala izaten jarraitu zuen eta modernizazio ekonomikoa gune periferikoetara baino ez zen mugatu.

1898ko krisia beraz, ekonomiko eta politikoa baino, **moral eta ideologikoa izan zen.** Aurretik jada aipaturiko "arazoei" gainera, oposizio eta mugimendu berrien indarra batu beharko genieke. Izan ere honek, Espainiako elite eta intelektualen artean ezinegona, frustrazioa eta etsipen sentsazioak areagotu zituen:

1. *Langile mugimenduaren indarra* geroz eta handiagoa izan zion, ordena eta harmonia nazionala kolokan jartzen zituena.
2. Testuinguru honetan gainera, *nazionalismoak ere izugarri indartu ziren*, bai Katalunian nola Euskal Herrian, batasun nazionala arriskuan jartzen zuena.

Testuinguru honetan guztian **ERREGENERAZIONISMOAREN ideiei** eman zitzaien bide, hots, sistema politiko, sozial, ekonomiko eta pedagogikoaren berritzea aldarrikatzen zuten ideia multzoari. Erregenerazionismoak arrakasta izan zuen klase ertain, intelektual eta izaera errepublikarreko jendearengan, batik bat, Irakaskuntzako Erakunde Librean biltzen zirenen artean. Erakundea XIX. Bukaeran sortu zen hezkuntza erreforma bultzatzeko helburuz sortu zen, Krause alemaniarraren ildo filosofikoari jarraitzen zion pedagogia aldarrikatuz, (kontzientzia askatasunean, laizisimoan… oinarriturikoa). Erregenerazionismoaren lider karismatikoena ***Joaquín Costa*** izan zen, *(ikus 2015.orria)***.** Talde hauek Espainiako arazo politiko, sozial eta ekonomikoak gainditzeko, sistemaren modernizazioaren beharra aldarrikatu zuten, (iraultzarik egin gabe, jendea heziz eta hauen bizi maila hobetuz). Hauen helburuak honakoak izan ziren:

- Ustelkeri politikoarekin amaitzea, (txandaketa, kazikismoa, ustelkeriak…. Gaindituz).
- Ekonomia modernizatzea, (nagusiki nekazaritzaren sektorea maila guztietan hobetuz).
- Espainiako gizartearen hezkuntza zein kultura maila handitzea.
- Kolonien galeraren etsipena gainditzea, etab.

Egoera honek guztiak bide batez, **98ko belaunaldia literaturagilearen** sorrera ekarri zuen;

- *Autoreak*: Miguel de Unamuno, Ramiro de Maeztu, Pío Baroja euskaldunak), Valle Inclán, Azorín, Ortega y Gasset (filosofoa), etab.
- *Ezaugarri komunak:* Pesismismoa (denak oso ezkorrak ziren), Espainiako abertzaletasuna eta Espainiako baloreak berreskuratzeko nahia (nazioak bizi duen krisi moralari aurre egiteko). Espainiak historian izandako papera goraipatzen zuten.